

## **RAMON y CAJAL KONTRATUEN 2024ko DEIALDIA**

### **a) INTERES-ADIERAZPENA AURKEZTU NAHI DUTEN IKERKETA TALDEENTZAT INFORMAZIOA**

#### ***UPV/EHUk eskaini beharreko interes-adierazpenen hautaketa***

UPV/EHUk plaza kopuru mugatua eskainiko du deialdi honetan. Ramón y Cajal ikertzaile bat hartzeko interesa duten ikertaldeek beherago zehaztutako dokumentuak bidali beharko dituzte [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera, **2025eko urtarrilaren 13a baino lehenago**:

1. **"Interes-adierazpena"** dokumentua, Ikerketaren Errektoreordetzaren web orrian eskuragarri dagoena. Dokumentu honen atal guztiak bete behar dira.
2. Hautagaiaren CVA.
3. **Hautagaiak sinatutako erantzunkizunpeko adierazpena**, Zientzia legearen 22.artikuluak araututako kontraturik izan duen ala ez adierazten( eredua web orrian dago eskuragarri). Kasua bada kontratuaren iraupena zehaztu beharko da.

#### ***UPV/EHUko kontaktua:***

**Ikerketa taldeek** interes-adierazpenen inguruko zalatzak [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera zuzendu ditzakete . Mesedez, mezuaren gaian adierazi: "Ramon y Cajal 2024".

### **b) INFORMAZIOA DEIALDIAN PARTE HARTU NAHI DUTEN IKERTZAILEENTZAT**

#### ***Laguntzen ezaugarriak:***

**494** laguntzearako deialdia egin da; horietatik **477 txanda orokorrekoak** dira, beste **10 %33ko** edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke izango dira, eta **7** autonomia-erkidegoetako nekazaritza eta elikagaigintza ikerketako zentro publikoetan kontratatzeke (RyC-INIA-CCAA). Erreserba orokorreko txandatik **80** laguntza espezifiko gordetzen dira talentua erakartzeko, bere jarduera profesionala atzerrian garatzen duten ikertzaileak sar daitezen sustatzeko.

Gainera, **50.000 euroko laguntza gehigarri orokorra** emango zaio onuradun bakoitzari ikerketa

jarduera gauzatzearekin zerikusi zuzena duten gastuak ordaintzeko, I+Gko zentroan bere lanpostura sartu ondoren. **Talentua erakartzeko** laguntzen kasuan, aipatutako laguntza gehigarriaren zenbatekoa 50.000 euro handituko da, **100.000 euro**koa izango da guztira.

### **Kontratuen ezaugarriak:**

Kontratuen iraupena gehienez ere **5 urtetarako** izango da. Kontratuaren iraupena bi fasetan banatuko da:

- a) Lehenengo faseak gutxienez 3 urteko iraupena izango du.
- b) Bigarren faseak, gehienez, 2 urteko iraupena izango du. Bigarren fase honetan sartu ahal izateko, ikertzaileak R3 ikertzaile izateko irizpideak gaindituta izan beharko du.

UPV/EHU-n hasiko diren onuradunek jasoko duten ordainsaria UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen negoziazio mahaiaren akordioan ezarritakoen arabera izango da, doktore-aurreko kontratua eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sistemara sartzeko kontratua duten aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa, 2021eko abenduaren 16an Gobernu Kontseiluak berretsi zuena.

### **Eskaera egiten duten pertsonen betekizunak:**

Eskatzaileek **deialdiaren oinarrien 6. artikuluan** zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

### **Eskariak aurkezteko epea:**

**2025eko urtarrilaren 21aren 14:00ak arte; epe bakarra bai eskatzaileentzat bai UPV/EHU-entzat.**

### **Ikertzaileek eskaera aurkezteko modua:**

Eskaera modu independentean aurkeztuko dute ikertzaileek eta I+G guneez. Beraz, eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikerlariaren erregistroa" atalean, [hemen](#)
2. Bete eskabide orria honako aplikazio honetan: <https://aplicaciones.ciencia.gob.es/ryc/>
3. Eskaera erregistratu, deialdiaren 12.2b) artikuluan deskribatutako bideetako batetik.

#### **GARRANTZITSUA:**

Ikertzaileek beraiek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. Ikertzaileek aurkeztutako eskariak **ez dute beharko UPV/EHUko lege ordezkararen onarpenik.**

### **MCI-ko kontaktua:**

Eskatzaileek MCI-i kontsultak egin ahalko dizkiote esteka honen bidez: [https://ciencia.sede.gob.es/pagina/index/directorio/utilidad\\_contacte\\_con\\_nosotros](https://ciencia.sede.gob.es/pagina/index/directorio/utilidad_contacte_con_nosotros)

**Informazio gehiago:** [Esteka](#)